


## 2018ko Egitaraua



- UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak bere XXXVII edizioa ospatzen du 2018an. Aldatzen ari den gizarte baten inguruko eztabaida eta pentsamendu kritikorako eremua eskaintzen dute Ikastaroek.

Aurrez aurreko jarduerak maiatzetik urrira arte iraungo dute. Urte guztian zehar online Ikastaroen programa eskaintzen da.

Apirilaren 12 an ireki da aurrez aurreko ikastaroentzat matrikula egiteko epea, maiatzaren 31ra arte murriztua izango delarik.

Egitaraua ikusteko:

[Bilatzailera joan](#)

[Asteko programazioa](#)

Programek aldaketak jasan ditzaketenez web gunea kontsultatzea gomendatzen da, non informazioa eguneratzen den.

Jarduerak irizpide desberdinen bitartez sailkatzen dira:

## **Jarduera motaren arabera**

Ziklo ezberdinetan barne hartutako ikastaroek, tailerrek, eskolek, jardunaldi profesionalak eta biltzarrek osatzen dute egitaraua. Jarraian, horien zerrenda aurkeztuko da:

### **Ikastaroak**

Ikastaroak egitarauaren muina izan dira beti, eta ezagutzetan sakondu edota horiek areagotzera zuzenduta, prestakuntza jarduera bat dira.

[Ikastaroak ikusi](#)

### **Tailerrak**

Tailerrak ezagutza tazitu eta eskumen praktikoak bereganatzera zuzenduta daude. Bereziki, sormen, hobekuntza eta teknika instrumentalei lotutako gaien inguruan ikasteko balio dute.

[Tailerrak ikusi](#)

### **Eskolak**

“Udako Eskolak” prestakuntza espezializatuko jarduera ildoak dira, eta epe ertainean irauteko helburuarekin, urtero aukeratutako gaiaren alderdiak jorratzen dituzte. Gizarte eragile baten (Enpresa, Fundazioa, Elkarte...) edo eragile zientifiko edo akademiko baten laguntzaz antolatzen dira, erreferentziazko prestakuntzari buruzko programak lortze aldera. Bere kalitateagatik eta bertaratzen direnak elkarren segidako edizioetara etortzeko asmoagatik bereizten dira.

[Eskolak ikusi](#)

### **Jardunaldi profesionalak**

Sektore profesionalekin lotutako eduki berezien tratamendura zuzenduta daude jardunaldi profesionalak. Elkarte Profesional, Enpresa, Elkargo Profesional eta bestelako Erakundeekin elkarlanean antolatzen dira.

[Jardunaldi profesionalak ikusi](#)

### **Kongresuak**

Ikerlanak, teoriak, esperientziak, “Know-how” delakoak garatu eta aurkeztea dute xede Biltzarrek. Elkarte Zientifiko edo Profesionalekin elkarlanean antolatzen dira.

[Biltzarrak ikusi](#)

## Jarduera irekiak

Udan zehar, publiko orokorrari zuzendutako jarduerekin osatzen da eskaintza. Egintza hauek ikasgeletan garatutako jarduerekin loturik daude. Doakoak dira.

[Jarduera irekiak ikusi](#)

## Online ikastaroak

Online ikastaroen programazioa aurreko edizioetako presentziazko uda ikastaroez osatuta egongo da, online metodologiari egokিতuta, edo online emateko apropos diseinatutako ikastaroez.

[Online ikastaroak ikusi](#)

## Zikloka

Egitarauko jarduerak zikloka antolatuta daude:

### Gaikako zikloak:

- [Arkitektura eta hirigintza](#)
- [Bizitzaren bidaia](#)
- [Kriminologia](#)
- [Zuzenbidea](#)
- [Ekonomia eta enpresa](#)
- [Historia](#)
- [Gizarte zientziak](#)
- [Hezkuntza](#)
- [Informazioa eta komunikazioa](#)
- [Artea eta Kultura](#)
- [Literatura eta hizkuntzalaritza](#)
- [Energia eta ingurumena](#)
- [Osasuna](#)
- [Psikologia](#)
- [Kirola](#)
- [Zientzia eta teknologia](#)

### Zeharkako zikloak:

- **"Ikastaroak guztientzat"**

Hiritar guztiei zuzenduta daude eta gai zabal eta anitzak hartzen dituzte. Ikastaro hauetan, matrikula murriztua eskaintzen da (%50 maiatzak 31 arte) liburutegiko edo dagokion kultura etxeko bazkide txartela aurkeztuta.

[Ikastaroak guztientzat ikusi](#)

- **"Irakasteko ikasten" programa. EAEko Irakaskuntzako profesionaleri zuzendutako zikloa**

Ziklo hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin elkarlanean prestatu da. Ziklo honetako ikastaro guztiak homologatuko dira, horietara joaten diren irakasleek dagokien ziurtapena izan dezaten.

Uda Ikastaroek matrikula murriztuak (%50 maiatzak 31 arte eta %35 ekainaren 1etik aurrera) eskaintzen dizkie [EAEko lehen eta bigarren hezkuntzako](#), [batxilergoko](#) eta [lanbide heziketeko irakasleei](#), egitaraua osatzen duten ikastaroetarako.

[APE Ikastaroak ikusi](#)    [APE akreditazio dokumentua](#)

Bestalde, "Irakasteko ikasten" Zikloa osatzen duten ikastaro batzuk, **Prest\_Gara Planaren** parte dira



gainera. Bilatzailean Prest\_Gara programara aurkeztuko diren jarduerak aukeratu daitezke. Prest\_Gara programan sartuko direnak erabaki bezain laster, honen berri emango da.

- **"Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa"**

Urteko egitarautik, "Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa" zikloa osatzeko hainbat ikastaro aukeratzen dira. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin elkarlanean prestatu ohi da ziklo hau. Matrikula murriztua (%75eko deskontua tarifaren gainean) izango dute [EAEko osasun publiko arloko profesionalek](#). Prestakuntza hobetu eta eguneratzera zuzenduta dago zikloa.

[Osasun ikastaroak ikusi](#)